UEU-KO IKASTAROAK. Estereotipoen irudikapena aztertu dute


JOXE LACALLE
Espainiako Polizia gogor aritu zen kontzentrazioan bildu nahi zutenen aurka.

Hirugarren egunez, Polizia oldartu egin zaie Iruñean aparkalekuaren aurkakoei

Poliziak eragotzi egin zuen aparkalekuen aurkakoek egin nahi zuten kontzentrazioa

Irene Arizurreta | IRUÑEA

Espainiako Poliziak eragotzi egin zuen atzo Iruñeko Gazteluko plazako aparkalekuaren aurkakoek bertan egin nahi zuten kontzentrazioa. Hirugarren egunez jarraian, Polizia behin eta berriro oldartu zitzaien plazan edo inguruetako kaleetan protesta egin nahi zutenei. Juan Luis Napal HBko zinegotzi ohia erietxera eraman behar izan zuten, kolpe batekin buruan zauria egin ziotelako. Beste hainbat jende ere zauritua izan zen, horien artean jende heldua ere jipoitu zuen Poliziak atzo arratsaldean iruñeko Gaztelu Plazan.

Iluntzeko zortzietan zuten hitzordua protestariek, baina ordurako Poliziak hartuak zituen plazako sarrera guztiak eta inork ezin izan zuen sartu, Poliziak sartzea eragotzi egin baitzuen. Lanak inguratzen dituen hesiak porlanez itsasarazi zituen lurrera, bezperan aparkalekuaren aurkakoek bota egin zituztelako. Gazteluko plazako kafetegietan bildutako jende ugarik kalejira egin zuen Iruñeko Udalaren eta Poliziaren jarrera salatzeko. Horretan, Poliziak ez zuen ezer egin kalejira geratzeko.

JOZE ABAURREA
(Batasuneko kidea)

«UPNk herritarren nahia eta partehartzea mespretxatzen ditu»

GAZTE ABERTZALEAK

«Lotsagarria da Iruñeko Udalak lanen aurkakoen hitza poliziarekin isilarazi nahi izatea»

Oposizioa haserre

Aparkalekuaren proiektuan Yolanda Barcina alkateak egindako politika «autoritarioa eta demokraziaren kontrakoa» dela salatu zuen Batasunak, Joze Abaurrea zinegotziaren bitartez. «UPNk herritarren nahia eta partehartzea mespretxatu du», gaitzetsi zuen Abaurreak.

Batasunak bezalaxe, Eusko Alkartasunak ere lanak gelditzeko eskatu zuen atzo. Halaber, Gazte Abertzaleak (EAko gaztedia) eta Nafarroako Gazte Sozialistak taldeekin batera Espainiako Poliziaren herenegungo oldarketa salatu zuten. Gazte Abertzaleen ustez, Udalaren jokamoldea «lotsagarria» da lanen aurkakoen hitza «Espainiako Poliziarekin isilarazi nahi duelako». PSNko gazteek Poliziaren jokabidea «gehiegizkoa» izan zela deitoratu zuten, eta azalpenak eskatu zituzten.

UEU. Estereotipoen irudikapena aztertu dute

Leizaola: «Irudiek herriei buruzko estereotipoak finkatzen dituzte»

Orreaga Aranburu | IRUÑEA

Herriei buruz egiten diren irudikapenek estereotipoak finkatzeko orduan eragina dutela azaldu zuen atzo Aitzpea Leizaolak UEUko antropologia ikastaroetan. «Irudia eta identitatearen arteko uztarketa» aztertzeko, komiki eta mapetan oinarritu zen.

Estereotipoak finkatzeko bideratutako testu anitz daudela erran zuen: «Garai bakoitzean herri bakoitzak etsaiaz egiten duen irudikapena ikus daiteke». Irudiarekin antzeko zerbait gertatzen dela azaldu zuen. «Irudia eguneroko tresna gisa zabaltzen da, eta identitate jakin bat finkatzen du».

Leizaolaren hitzetan, tradizioa moldatu egiten da. «XVIII-XIX. mendeetako grabatuetako jantzietan manipulazioa bazegoen».

Giza taldeak modu berezian irudikatzerakoan hitzezko estereotipoen teknika bera erabiltzen dela azaldu zuen: «Hainbat elementuren bidez, taldearen definizio eta identifikazioa egiten dugu». Ildo horretan, karikatura politikoak aipatu zituen. «Umorearen bidez definizioetako elementu eta estrategiak plazaratzen dituzte».

Komikiak eta mapa seriokomikoak

Azkenaldian komikiek indar handia hartu dutela azaldu zuen Leizaolak: «Umorea ulertzeko hainbat modu daude». Komiki askok mezu jakina dutela adierazi zuen. Mapak «marraztu diren garaiko erradiografia politiko gisa» irakur daitezkeela ere erran zuen. «Maparen egilea zein herritakoa den eragina dauka, nazioarekiko harremanei buruzko ikuspegia azaltzen baita horietan.

IJITOAK. Iruñerriko ijitoei zuzenduko zaie



JESUS DIGES / EFE
Atzo sinatu zuen hitzarmena Nafarroako Gobernuak.

Integraziorako programa onartu du Foru Gobernuak

Agentziak | IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak eta Ijitoen Idazkaritza Nagusiak hitzarmena sinatu zuten atzo, Iruñea eta inguruko herrietako ijitoen integrazioa bultzatzeko. Hala, Nafarroako Ongizate Sozialeko Institutuak programa bat abiatuko du, eta ijitoen bizimodura egokitutako zerbitzu, hezkuntza errekurtso eta enplegu erraztasunak ematea izango da helburua.

Programaren aurrekontua 228,8 milioi pezetakoa izango da (9,2 milioi libera inguru), eta hitzarmena sinatu duten erakundeen artean finantziatuko dute.

Programaren sinatzaileen arabera, egun integraziorako dauden tresnak «ez dira baliogarriak» ijitoei begira; kontuan hartu behar delako «talde berezi bat» direla eta berezitasun eta ezaugarri kultural ezberdinak dituztela. Horiek guztiak, beraz, kontuan hartuko dituzte programa abiatzerakoan.